

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	DESKARGA-ERAGIKETEN KOORDINAZIOA	Iraupena	80
		Espezifikoa	
Kodea	UF0826		
Lanbide-arloa	ITSAS ETA ARRANTZA-JARDUERAK		
Lanbide-eremua	Arrantza eta nabigazioa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lonjen antolamendua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Lonjan produktuak biltegitratzea eta erakustea	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Etiketatzeko-eragiketen ikuskapena	Iraupena	50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0290_3ko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Atrakatze eta deskargak eta haien laguntza logistikoa koordinatzea, eta indarrean dagoen araudiak eta/edo dagokien kalitate-planak eskatutako kondizio higieniko-sanitarioak eta laneko arriskuak prebenitzekoak betetzen direla egiaztatzea

E1.1 Itsasontzi baten armadoreak deskarga bat eskatzeko eduki behar dituen dokumentuen eta egin behar diren tramiteen zerrenda egitea.

E1.2 Atrakatzeak eta deskargak antolatzeko sistema azaltzea, espazioa, kantitatea eta espeziea kontuan hartuta, deskarga eraginkor eta bizkor egin dadin.

E1.3 Produktuari behar ez den kalterik ez egiteko, haiek deskargatzeko eta garraiatzeko baliabide material egokiak identifikatzea.

A2: Arrantzako produktuak merkaturatzeko kondizioak deskribatzea, haien kontserbazioa kontuan hartuta eta gorabehera-partea beteta.

E1.4 Arrantzako produktuak manipulatzeako kondizio higieniko-sanitarioei buruz indarrean dagoen araudia eta produktu horiek merkaturatzeko dagoen araudia identifikatzea, haien kontserbazioa bermatzeko.

E1.5 Produktuak fase guztietan, enkantera bitarte, kalteak minimizatzeako bete behar dituen hozte-kondizioak azaltzea.

E1.6 Gorabeheren parteak identifikatzea eta betetzea, araudia eta/edo kalitate plana kontuan hartuta.

Edukiak:

1.- Arrantzako produktuen deskarga eta manipulazioari buruzko araudia.

- Arrantzako produktuen deskarga eta manipulazioari dagozkien arau higieniko-sanitarioak. Bestela, horrela ondo dago.
- Arrantzako produktu fresko eta izoztuen identifikazio eta tratamendurako arauak.
- Arrantzako produktuen hondakinen tratamendu egokia.

2.- Arrainak eta itsaskiak manipulatzeako tekniken aplikazioa.

- Arrantzako produktuen manipulazioa.
 - Harrera.
 - Garbiketa.
 - Saikapena.
 - Pisaketa.
 - Biltegitratzea.
 - Erakusketa.
 - Enkantea.

3.- Arrantzako produktuak deskargatzeko prozedurak.

- Deskarga-eskaerak.
 - Erabiltzaile-agiria.
 - Atrakatzeko baimena.
 - Atrakatze-zerrenda.
 - Atrakatzeen eta lonjako posizioen plangintza.
- Deskargatzeko baliabideak.
 - Troilak.
 - Sokateria mugikorra.

- Baimendutako ontzi garbi eta higienizatuak.
- Paletak.
- Itsasoko ur higienizaturako mahukak.
- Estaltzeko izotza.
- Jasogailuak eta transpaletak.
- Hondakinen edukiontziak.
- Manipulatzailen jantziak.

4 Tenperaturen kontrola.

- Produktu guztiei izotza gehitzea.
- Lonjako tenperatura kontrolatzeko jarraibideak.
- Neurgailuen kalibrazioa.
- Tenperaturen eguneroko neurketa.

5.- Kalitate-planaren kudeaketa.

- Kontrol eta ikuskapen estrukturala eta instalazioena.
- Produktuaren kontrola eta ikuskapena.
- Langile manipulatzailen kontrola.
- Instalazioetan, ekipoetan edo arrantzako produktuak manipulatzeko dituzten langileen ohituretan aldaketak hautematea.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.

- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lonjen antolamendua.